



Solano trikitilariak eta Pilar Catalina sopranoak. Amaia Dorronsoro organuan lagun zuela, musikaz girotu zituzten kale eta Karmengo Amaren kapera.



Mikeli Bengoetxea eta Joxe Jauregientzat ere egun berezia izan zen ostiralekoa, urrezko ezteiak ospatu baitzituzten.

Erdi Aroko Azoka egin da asteburuan herrian

Santa Ana Artisanu Azokaren ordeztu, aurten Erdi Aroko Azoka antolatuta da. Larunbat goizean eguraldiak ez bazuek gehiegi lagundu ere, jende ugari bildu zen Brigitarren plazan eta Dorre parkean. /4-5



Karmengo Amaren ohorez

Oria auzoko bizilagunek haien zaindari den Karmengo Amaren eguna ospatu zuten ostiralean.

Solano trikitilari eskolako gazteek goizetik kaleak girotu zituzten eta haien doinu alaiak, auzotarrak Karmengo kaperan eguerdian egingo zen mezetara joatera gonbidatzen zituzten.

Juan Luis Muruak zuzendu zuen Oriatarren zaindarien-meza, Xabier Andonegi eta Ramon Uribeberriaren laguntzaz.

Urtero legez, aurten hildako auzotarrak izan ziren gogoan.

Pilar Catalina sopranoak, Amaia Dorronsoro organoan lagun zuela, mezetako hainbat parte musikaz girotu zituen.

Elizkizuna amaitzerakoan, trikitilariak auzotarren irteera girotu zuten. Eta ostean, kaleak girotzen jarraitu zuten. •



Auzotarrak, udal ordezkariak eta Oria auzoko lagun ugari bildu ziren Karmengo Amaren kaperan egin zen mezan.

KOOPERAZIOA /3

Saharako haurrak Lasarte-Oriara iritsi dira

INGURUMENA /3

PubliPan ogiaren paperezko poltsa aurkeztu zuten

KIROLA /6

Santa Ana Pala txapelketa azken txanpan sartu da

KIROLA /6

Ostadarreko zikloturistek atsedena hartuko dute iraila arte



Bideo Lagunak

BEGIRATU
GURE ESKAINTZAK!

**Betiko zerbitzua
gure
aholkularitza
onenarekin**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

‘Hernaniko txapelketan finalera iristea espero ez bagenuen ere, irabazi dugu’

ITXASO MORENO

Eneko Sarasola eta Jagoba Mendizabal, 12 urteko gazteak, etorkizun handiko kirolariak ditugu. Espero ez bazuten ere, Hernaniko pilota txapelketako finalean sartu eta garaipena eskuratu zuten lasarteitar gazte hauek. Ekainaren 19an, Hernaniko finalean 18-16 irabazi eta Enekok eta Jagobak txapela ekarri zuten herrira. San Pedro jaietan ospatutako txapelketan ere parte hartu zuten gaztetxo hauek.

Zorionak! Nola bizi zenuten txapelketa?

Hasieratik finalurrekoetan etxera joango ginela uste genuen. Baina beno, hasieratik ondo ibili ginen eta amaieran iritsi ginen, eta amaieran ere gu garaile.

Hamar bikote ginen orotara, bi taldeetan banatuta. Aurreko fasea horretan sailkapena lortu, final-laurdenetan aurrera jarraitu eta konturatu gabe, finalean ginen.

Aurreikuspen guztiak gaituta, esperantzik al zenuten finalean?

Ez. Aurretik jokaturako partida guztiak irabazi genituen, bat izan ezik, justu finalean gure

aurkariak izango zirenen kontra. Gainera, hauek Hernanikoak ziren eta publikoaren babesa zeukaten. Hala ere, guk irabaztea lortu genuen. Izerditan bukatu bagenuen ere, 18-16 irabazi eta garaipena eskuratu genuen.

Nola izan zen garaipena zuena zela konturatu zineten momentua?

Ezin genuen sinetsi. Txapelketako finala ekainaren 19an jokatu genuen, eta oraindik zaila egiten zaigu sinestea.

Hala ere, ondo ikusi genuen gure burua. Partida osoa dugu grabatuta, eta ikusi dugu. Hanka sartzeak sumatu ditugu. Urduritasun gehiago ematen du bideoan ikustea, jokatzan egoteak baino.

Eta nolatan parte hartu zenuen Hernaniko txapelketan?

Gu Lasarte-Oriako Intza kirol elkarte kirolariak gara. Euskal Pilotako sekzioan ibiltzen gara, eta gure entrenadorea den Pello Sarasolak komentatu zigun txapelketarena.

Hernaniko Pilota txapelketa antolatzen dutenek Intza gonbidatu zuten eta gu ordezkarri joan ginen.

Beste herri bateko txapelketan parte hartzeko gonbitea



Eneko Sarasola (aurrelaria) eta Jagoba Mendizabalek (atzelaria) Hernanin lortutako txapela eta trofeoarekin.

jaso behar duzu. Izan ere, kirol elkarte ezberdinen arteko torneoa baita.

Hernanitarrek garaituak,

agian hurrengo urtean gonbidapen gabe geratu zarete...

Ez. Kirol torneo bat da, kiroltasuna nagusi da. Hurrengo urtean seguruenik hor egongo gara.

Potentzia ezberdina dugu. Bat hobeto dabil aurrean eta bestea hobeto atzean. Entrenatzaileak badaki, guk ere bai, eta betidanik jokatu dugu postu horretan. Beraz, ondo doakigu.

Beti bikote berdina jokatzan duzue?

Ez beti, baina gehienetan bikoteka jokatzan dira txapelketak. Gainera ez da lehenengo aldia elkarrekin ibiltzen garena.

Entrenatzailea izan zen gure taldea edo bikotea erabaki zuena. Guretzako erabaki ederra da, izan ere txiki-txikitatik elkar ezagutzen dugu. Eta horrek lan talde batean asko laguntzen du, arazorik gabe elkar ulertzeko.

Gainera, bakoitza badugu gure postua (Eneko aurrelaria da eta Jagoba atzelaria.)

Sanpedrotan ere ibili zarete...

Bai. Baina Hernanikoa garrantzitsuagoa zen guretzat.

Herrian gure adinako jende gutxi dagoenez, zuzenean joan ginen finalera, beraz emozio gutxi. Hernanin gehiago borrokatu behar izan genuen.

Hala ere, polita da herrian jokatzeko. Herriko jendeak animatzen zaitu, Hernanin publikoak beste taldeak animatzen zituen. Sanpedrotako txapelketa polita izan zen. Gure jaietako torneoa. •



Hernaniko Pilota Txapelketako familia argazkian ezkerrean ikusten ditugu lasarteitar gazte hauek.

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Iritsi dira Saharako haurrak

Oporrak Bakean egitasmoari esker aurten Lasarte-Orian oporraldiak pasako dituzten Saharako 6 haurrak herrian dira.

Hiru hegaldietan iritsi ziren lehengo astean. Lehenengoan, uztailearen 8an Bilbora iritsitakoak, irailaren 7an egingo dute berriro euren jatorrizko herrialdeetara.

Beste bi hegaldiek uztailearen 10an ekarri zituzten gainerako haurrak eta hauek irailaren 9a arte egongo dira gure artean.

Abdel ezin izan da etorri

laz, 7 haur izan ziren herrian, aurten 6 izango dira orotara, gainera guztiak errepikatzaileak dira.

Pasa den urtean, Abdel izan genuen Lasarte-Orian, baina aurten 13 urte bete dituzenez ezin izan du *Oporrak Bakean* programan parte hartu. Izan ere, egitasmo honetan parte hartu ahal izateko, 12 urte baino gutxiago izan behar da "Saharako fronte polisariora urte muga hori jarri zuen" azaltzen digu Txema Benito, Sahara Herriaren Laguna elkarteko kidea. Hori horrela, Dahsalama, Malalinin eta Umujutharentzat azken urtean izango da hau.

Lau familia berarekin

Aurreko urtean, herrira etorri

ziren gainerako 6 haurrak; Dalahi, Dahsalama, Brahim, Fahda, Umujutha eta Malalinin gurekin daude, berriro ere.

Aurreko urteko harrera familia berarekin egongo dira hauek lau haur, beste biak familia berri batean egongo dira "gu aurten adibidez ezin izan dugu haurrik hartu lan kontuengatik," aipatzen digu Txemak.

Ekintzak eta osasuna

Urtero bezala, ekintza ugari bete da datorkie uda Saharako haurrei. Helburua, denbora tarte txiki batez errefuxiatuen kanpamentuetatik ateratzea, bertako baldintza gogorretatik aldentzeko.

"Nazio Batuen laguntzen jaisiera nabaritu dela aipatu zigun Sahararako lagun batek" esaten digu Txemak, "ospitaleetan oso material eta medikamentu gutxi dago" gaineratu zigun. Halaber, espezieria, kultura, hizkuntza, ohitura berriak ikasteko aukera dute.

Honetaz gain, haurrei mediko azterketak egingo zaizkie, osasuntsuago hazteko aukera izan dezaten.

"Familia bakoitzak bere aldetik errekonozimendu mediku bat egingo die umei eta gero Andoaingo Mugarik Gabeko Oftalmologoen Aran-



Udalak ostegunean egin zien harrera Dalahi, Dahsalama, Brahim, Fahda, Umujutha eta Malalinin Saharako haurrei.

tzazuko ospitalean errebisio bat doan egingo diete" azaldu zigun Xabier Lima, Lasarte-Oriako taldeko begiraleak.

Lasarte-Oria eta Andoaín

Bi hilabetez egongo dira Sahararako haurrak gure artean. Lehenengo hilabetean, Lasarte-Orian ibiliko dira. Eta bigarren hilabetean, Andoaín elkartu egingo dira bertako umeekin.

Ekintza eta txango ugari dituzte aurreikusiak. Lasarte-Oriako Udalak eta Sahara Herriaren Lagunek prestatuta, hilabete honetan igeriketa ikastaroa egingo dute.

Abuztuan Urnietako igerilekura, Aquariumera, Donostiara, hondartzara, Tolosako suhiltzaileak bisitatzen... ekintza ugari izango dituzte.

"Gure helburua ez aspertzeta, gure ingurua ezagutzeta eta gehienbat oporraldiez goza araztea da" aipatu zigun begiraleak. "Ez dizkiegu helburu finkoak markatzen, ordutegiz esan nahi dut, beraiei momentuan nahi dutena egingeko aukera ematen diegu," gaineratu zigun.

Patata tortilla

Ma-alinin-entzat azken urtea da aurtengoa. Lau urte darma gure herria bisitatzen eta "patata tortilla eta indioilarra" du gustuko. Bere jaioterria babarrunak eta dilistak ditu menu nagusi bezala, beraz hemengo aniztasunarekin asko disfrutatzen du. "Mendia, hondartza, ura, igerilekua" asko gustatzen zaizkio eta gozatzen du.

Lasarte-Oriako Udalak ostegunean egin zien harreraren Sahararik etorritako 6 haurrei motxila bana banatu zien. Irribarra nagusi izan zuen Malalinin-ek, eta ekitaldia amaitzeko zegoela "eskerrik asko opariak eman dizkiguzuei" hitzekin agurtu zigun.

"Oso ume onak dira eta ematen diozunarekin gozatzeko dute" azaldu zigun begiraleak.

Bere lehenbiziko urtea du Xabierrek begirale bezala. "Deigarria egin zitzaidan, bokadilloa jateko ordua iristen, atera eta denen artean banatzen dutela" azaltzen digu. Kolektibitate kontzeptua oso garatua dute "ez hemen bezala, bokadilo jaten jartzen duten aurpegi zorientua ikaragarria da." •

PubliPan, ogiaren paperezko poltsa aurkeztu zuten

Egun, publizitatea eta informazioa zabaltzeko bide asko daude, internet, mobilak... eta egunero euskarri berriak bilatzen dituzte.

Lehenengo azteazkenean, horietako euskarri bat aurkeztu zen Manuel Lekuona kultur etxean, PubliPan ogiaren poltsa.

Jose Manuel Mendez Buruntzaldeko ordezkariak eta Miguel Ulecia PubliPaneko arduradunak azaldu zuten, "ogia ia mundu guztiak kontsumitzen duen produktua da eta informazioa zabaltzeko modu berria aurkitu genuen ogiaren poltsaren bidez."

Jendearengana iristeko modu ezberdin, eraginkor eta ekologikoa dela ere azpimarratu zuten, "euskarri sinplea da, %100 zelulosa, biodegradagarria da eta ez du kutsatzen, 50 edo 100 egunen artean ongarri bihurtu daitekeena."



Jose Manuel Mendez Buruntzaldeko ordezkaria eta Miguel Ulecia PubliPaneko arduraduna prentsaurrekoan.

Irailen okindegiatan

Buruntzaldeko eta Zubieta auzoko okindegiatar irailaren 1ean iritsiko da ekimen hau.

"Okindegiei doan emango zaizkie poltsak hilabetean bitan, hasieran eta erdialdean. Era honetara, informazioa gal tzea ekiditen dugu," azaldu zuten.

Hilabetero, hirurogeita hamar mila poltsa izango dira eremuan banatuko direnak eta, era honetara, plastikozko poltsen erabilera murriztea

bilatzen da, "gutxi gorabehera milioi eta erdi poltsa."

Eremuko merkataritza

Ogiaren poltsan, arestian aipatu bezala, publizitatea eta elkarte edo instituzioen informazioa egongo da.

"Hainbat Udalekin hitz egin dugu eta ideia ona iruditu zaie, jaietako egitaraua edo kulturako egitaraua bertan itsatsi daitekeelako," azaldu dute.

PubliPan estatu eta nazioarteko mailako enpresa da eta izen handiko enpresek, Nestle edo Coca-Cola, esate baterako, euskarri hau erabili dute. Baina "hemen eremuko merkatariek eta herri erdialdeko dendeekin lan egingo dugu," adierazi zuten arduradunek.

Interesa duenak internetez, buruntzaldea@publipan.net helbidean edo telefonoz, 943 33 33 38 eta 667 435 645 zenbakietara deituz jarri daiteke harremanetan. •

Lasarte-Oriak Erdi Aroko garaietara egin zuen itzulera

- Dorre Parkean eta Brigitarren plazan Erdi Aroko azoka ederra ospatu zen giro onean
- EAB Imagen y Comunicación enpresak Erdi Aroan bilakatu zuen Lasarte-Oria



Grupo Bolillos Lasarte-Oria taldea lan eta lana ikusi genituen.



Coro Ortega eta Arantxa Martinek euren bitxi sorta erakutsi zigtenen.



Cerbando Iglasiasek larruzko artisau lanak salgai zituen Erdi Aroko Azokan.



Sua, piroteknia eta antzerkia batzen duen ikuskizun ederra eskaini zuten larunbat iluntzean, Akealarra.

Santa Anako artisau azoka Erdi Aroko azokan bilakatu da aurtengoan. Asteburu nahasia izan dugu gainera, larunbat goizean euri zaparrada ederrak bota zituen, baina hala ere jende ugari bildu zen azokara. Igandean, berriz eguzkia nagusi izan zen.

Itxaso MORENO

Dorre Parkea eta Brigitarren plaza Erdi Aroko azoka baten itxura hartu zuen asteburu osoan zehar. Arabiar azoka, tabernak, postuak, haurrentzako txokoa eta artisauen lana zuzenean ikusteko aukera izan zen. Honetaz gain, kale ikuskizunak eta musika giroa alaitzeko. Ekitaldi nagusiena edo aipagarriena, larunbat

gauean irudikatutako akelarreen ikuskizuna. Jende ugari bildu zen bertan.

Larunbatean goizeko 11:00etan Lasarte-Oriak Erdi Aroaren garaiko itxura hartu zuen. Asteburu berezia, garai-ko traje elegantez jantzitako bufoiak eta dibertsioa non-nahi aurkitu genuen.

Bi egunetan, aspertzeko astirik ez dute eduki lasarte-riarrak. Guztia, EAB Imagen



Errege familia berezi honek eman zion hasiera Erdi Aroko Azokari. Euri zaparrada egon arren, jendea hurbildu zen.



Kale ikuskizunek dibertsio puntua jarri zuten azokako kaleetan zehar.



y Comunicacion enpresak herrira ekarri digun azokari esker.

Asteburu osoan zehar, ikuskizun ugari eta bereziak izan ditugu herriko kaleetan. Larunbat eguerdian Errege familia berezi batek irekierako pregoia irakurri zuen. Euriak ez zuen ikuskizun polit hori narasterik lortu. Errege familia hau larunbateko kale ikuskizunen protagonista izan genuen. Gainera, erregearen oinordekoaren bila aritu ziren publikoaren artean.

Igandean berriz, izaki mitologikoak eta elizako hainbat pertsonai xeble ibili ziren azokan. Kolorea, musika eta algarra nagusi izan ziren.

Dibertsioa non-nahi

Asteburu aktiboa izan da etxeko txikienentzako. Haienentzako txoko berezia izan dute. Erdi Aroko jokoak hurbilek ezagutzeko aukera izan dute.

Dametari, xakeari, minigolfari, bola jokoa aritzeko aukera izan dute. Zaku lasterketan, arku-tiroan edo zaldi gaineko zintan aritzeko aukera ere luzatu zieten. Baña azoka poni baten gainean bistaratzeko ere.

Erdi Aroko garaietako mago batek egin zuen gure herrira salto eta prestatutako ikuskizunarekin txunditua utzi zituen herriko gaztetxoekin. •

Bariatatea nagusi

Orotara, 60 postu jarri ziren Erdi Aroko azokan. Denarik aurkitu ahal izan genuen bertan; janaria, xaboiak, bitxiak, eskuz egindako produktuak... Horien artean herriko artisauak ere aurkitu genituen. Bitxigintzan Coro Ortega eta Arantxa Martin. Larrugintzako postu batean Cerbando Iglesias herri-tarra. Eta azkenik, Grupo Bolillos Lasarte-Oriak euren lanak nola egiten dituzten erakutsi zizkiguten.

Hainbat artisauak ere euren lana nola burutzen zuten erakutsi zuten.



Goiko argazkian, hurbildutakoek probatu ahal izan zituzten mokaduak. Gainerakoetan, umeen dibertsiorako jolasak.



ANAIAK

JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

Kiroletako oharrak

Igeriketa haurrentzat

2010eko Uda kanpainaren barruan, Kirolen Udak Zerbitzuak irailerako haurtoentzat igeriketa ikastaroa edo matronatazioa antolatu da, besteak beste.

Ikastaro ezberdinak antolatu ditu Kirol Zerbitzuak, astelehenetik larunbatera eta guztiak 10:00etatik 10:30era izango dira.

Izena ematea, bai haurtoentzako ikastaroaren parte hartzeko eta baita gainontzeko kirol jarduerentzat, irekia dago.

Informazio gehiagorako, Kiroldegira hurbildu edo 943 376 182 zenbakira deitu.

Udal Kirol Gunea itxita

Uztailaren 31, larunbata Udal Kirol Gunea, Mitxelingo gunea, publikoari itxita egongo da.

Egun honetan bazkideek beste udal kirol instalakuntzak edo Buruntzaldekoak erabiltzeko aukera izango dute nahi izanez gero.

Erabiltzaileeri jakinarazten zaie Lasarte-Oriako Udalaren Kiroldegia 31ean, goizez, zabalik egongo dela, 9:00etatik 13:00etara.

Udalaren Kirol-Instalazioak bi astean itxita

Lasarte-Oriako Udalaren Kirol-Instalazioen 2010. urterako egutegiaren arabera, abuztuaren 15era bitartean, bi egunak barne, bi asteko geldialdi teknikoa egingo da. Izan ere, instalazioetan mantenimendu eta garbiketa lanak egin behar dira.

Halaber, erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioaren arabera, nahitaez egin beharreko ekintzak egiteko ere errabiliko da geldialdia.

Egun horietan Kirol Instalazioko abonatuak beste instalakuntza hauek erabiltzeko aukera izango dute, Urnieta-ko kiroldegia, telf. 943 008 328 edo abuztuaren 8tik aurrera, Usurbilgo kiroldegia, telf. 943 372 498.

Instalazioen erabilera

Udalaren Kirol Instalazioak entrenamendu eta txapelketarako erabiltzen dituzten talde federatu gehienek denboraldia amaitu ondoren, erabiltzaileeri ondoko hau gogora arazi nahi die Kirol Zerbitzuak, entrenamenduen hurrengo denboraldia hasi bitartean, ordu libreak aurkitzeko aukerak askozaz ere handiagoak direla bai kantzak okupatu edo alokatzeko.

Santa Ana pala txapelketa azken txanpan sartu da

Ostegunean, final erdiak jokatuko dira Michelin fabrika ondoko pilotalekuan

XXVIII. Santa Ana pala txapelketa azken fasean sartu da. Ostegunean, final erdiak jokatuko dira eta hurrengo astelehenean, Santa Ana egunean kontsolazioa eta finala jokatuko dira.

Maiatzaren 31tik, Michelin enpresa ondoko pilotalekuan jokatuko dira partidak eta azken egun hauetan, final laurdenetako partidak ikustera herritar ugari bildu da bertara.

Zortzi bikote lehian

Hogei bikote ziren Santa Ana Pala txapelketa hasieran eta egun, zortzi besterik ez dira geratzen.

Begiristain anaiek, Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibar, Mikel Bardaji eta Xabier Etxezarreta, Bernaitz Odriozola eta Shanti Martin, Xabier Otaegi eta Zigor Iriondo, Ibon Azkonobieta eta Eneko Iradi, Carlos Garcia eta Mikel Arroyo, Imanol Bardaji eta Iñigo Arluziaga dira final erdietarako sailekako lehian egongo diren bikoteak.

Zortzi bikote hauek bi multzotan banatu dituzte eta ligila sisteman, lau partida jokatuko dituzte eta taldeetako bi bikote onenek final erdietako txartela eskuratuko dute.

Final laurdenak

Lehenengo astean, jokatuko zitezuten final laurdenetako partidak gehiengo handia.



Gaur eta bihar jokatuko diren Santa Ana txapelketako final laurdenetako partidatan erabakiko dira final erdietako bikoteak.

Lehenengo astelehenean, lehenengo multzoko partidak jokatuko ziren. Begiristain anaiek 35 eta 26 irabazi zieten Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibari.

Ondoren, Mikel Bardaji eta Xabier Etxezarreta bikotea 35 eta 20 gailendu zen Bernaitz Odriozola eta Shanti Martin bikoteari.

Bigarren multzoaren barruan, asteartean, Xabier Otaegik eta Zigor Iriondok 24 eta 35 galdu zuten Ibon Azkonobieta eta Eneko Iradiren aurka.

Arratsaldeko bigarren partidatan, aldiz, Iazko txapeldunek, Imanol Bardaji eta Iñigo

Arluziagak 35 eta 30 irabazi zioten Carlos Garcia eta Mikel Arroyo bikoteari.

Asteazkenean, lehenengo multzoan Begiristain anaiek bigarren garaipena eskuratu zuten, Mikel Bardaji eta Xabier Etxezarreta 35 eta 25 garaitu ostean.

Multzo horretako bigarren partida, berriz, oso borrokatsua izan zen. Izan ere, Bernaitz Odriozolak eta Shanti Martinek 35 eta 34 irabazi zieten Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibari.

Ostegunean, bigarren multzoan, Imanol Bardaji eta Iñigo Arluziagak ere bigarren garaipena eskuratu zuten. Ibon Azkonobieta eta Eneko

Iradi 16 tantotan utzi zituzten.

Bestalde, Carlos Garcia eta Mikel Arroyo bikoteak 35 eta 33 garaitu zituzten Xabier Otaegi eta Zigor Iriondo.

Final laurdenetako azken partidak, gaur eta bihar jokatuko dira eta erabakiorrak izango dira final erdietako bikoteak nortzuk diren jakiteko.

Final erdiak ostegunean

Sailkatuak direnak direla ere, txapelketako final erdiak ostegunean jokatuko dira.

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, eguraldi txarra egingenez gero, Oriako frontoian jokatuko dituzte final erdieta-ko bi partidak. •

Ostadarreko zikloturistek atsedena hartuko dute abuztuan



Ostadarreko txirrinda saileko kideak ekipamendu berriarekin egin zuten argazkia.

Arg.: J. Zatarain

Martxoan hasi zuten denboraldia Ostadar Kirol Elkarte-ko txirrindulariek eta hilabete hauetan, igandero egin dute irteera Gipuzkoa eta Nafarroako hainbat txokotara. Mila kilometro baina gehiago egin dituzte irteera horietan.

Horretaz gain, taldeko kide batzuk Zikloturisten Challengeko proba batzuetan ere parte hartu dute, esate baterako, Gipuzkoako buelta Ziklotur DV proban.

Ekaina bukaeran, Ostadarreko zikloturistek ekipamendu berria estreinatu zuten, ondoan dagoen argazkian ikusi daitezkeen bezala.

Eta hilabete honetan, irteera bakarra geratzen zaie Mandubiako gainera. Abuztuan, aldiz, merezitako atsedena hartuko dute irailan berriro indarrez hasteko. •

Egunero

Erakusketa

PAISAIA AMETSETAN margo erakusketa ikusgai Jalgin hilaren bukaera arte.

Rudy margolariaren lanak dira. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.



Astelehena, 26

Antzerkia

Santa Ana egunean hainbat ospakizun izango dira. Goizean meza Brigitarrenean, 11:00etan, eta iluntzean, 22:30etan, Santa Anako Parodia Isla plazan.

Liburutegiko udako ordutegia



Manuel Lekuona kulturetxea

Manuel Lekuona kulturetxea
Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

UZTAILAN

Goizez: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:00etara

Arratsaldez: astelehenetan 16:00etatik 20:00etara

Larunbatetan, itxita

ABUZTUAN itxita egongo da

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxari@txintxari.info helbide elektronikora bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Buruntz Azpiko galeper tiraketa

Uztailaren 31n Buruntz Azpi elkarteak Galeper Tiraketa (kaiolan) ospatuko du. Aurreko urteetan bezala izen-emaitea Buruntz-Azpi elkartearen bertan egin behar da; hamaitzako egongo da.

Stock eta Saldoen III. Azoka martxan

Stock eta Saldoen III. Azokan parte hartzeko gonbita egiten die Aterpea merkatari-elkarteak herriko komertzioei. Azoka berezi hau irailaren 25 eta 26an egongo da, Michelin Kirol guneko pilotalekuan.

Bertan bere produktua saldu nahi duenak, Aterpearekin jarri behar du kontaktuan, 637 955 030 eta 687 845 623 telefono-zenbakien bitartez, edo itziariruzun@hotmail.com helbidera posta elektronikoki bidaliaz.

Gasolina merkeago Aterpeko txartelarekin

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkatariaren elkarteak kanpaina berri jarri zuen martxan asteartean. Honetan, Oriako Allerru gasolindegian despositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, %2ko beherapena izango dute haien ordaintzetan.

Ola kalea itxita kale Nagusitik

Lasarte-Oria eta Usurbil uda-

lerrien saneamenduko interzoptore orokorreko lanak direla eta, Kale Nagusitik Ola kalerako sarrera itxita egongo da.

Era honetara, Ola kaleko mozketak dela eta, zirkulazio aldaketak egongo dira: Zumaburu auzorako sarrera elizaren ondotik izango da eta auzoaren irteera Erribera kaleatik. Zumaburu kalean kotxeen zentzua aldatu egingo da, beraz.

Kalean zentzuarekin gertatzen den bezala, garajeen

sarrerak eta irteerak ere zentzuz aldatzen dira.

Orain arte sarrera zena irteera izango da eta irteera zena, sarrera.

Alkatetzak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik eta bizilagunen laguntza izango duelakoan dago.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxari@txintxari.info



Santa Ana parodia

Aurtengo Santa Ana parodian parte-hartu nahi baduzu; akto-re moduan (testuarekin edo gabe), atrezzoan, dekorazioan, jantziekin... lagundu nahi baduzu, jo Ttakuneko bulegora (Geltoki kalea 4), deitu telefonoz 943 371448 edo bidali mezua bat kultura@ttakun.com helbidera. Entsaioak hilaren 19an, astelehenean, hasiko dira kulturetxean 19:00etatik 21:00etara.

Añorgako Karmengo Jaiak

Astelehena, 19

10:00etan Umeentzako tailerrak Rezola museon.
14:00etan Kuadrillen arteko bazkaria.
16:00etan Mus txapelketa

18:00etan "Pilota goxoko" txapelketako finala.
19:30etan Electrotxaranga
21:30etan Erromeria gazte lokalean UNSAIN anaiekin
23:30etan Bandera jaitziera

Zubietako Santio Jaiak

Ostirala, 23

19:00etan Jaien hasiera (buruhandi, txalaparta, e.a...)
21:00etan Herri afaria.

Ondoren, EGAN taldearekin dantzaldia.

Astelehena, 26

06:00etan Oilasko biltzaileen irteera.
14:00etan Oilasko biltzaileen itzulera eta azken dantza.

Asteartea, 27

Larunbata, 24

10:30etan Meza.
11:30etan Zubietako III. SAGARDO eguna. (Iruin, Araeta, Aialde-Berri...)
14:00etan Jubilatuen bazkaria.
16:00etan Mus txapelketa.
17:00etan Zubietako bikotekako II. Bizikleta lasterketa.
18:30etan Patata tortila lehiaketa. (Bakoitzak bere tresnak eta nahi dituen osagaiak ekarri ditzala).

Ondoren, ITZARTU trikitixa taldearekin dantzaldia.
23:00etan Kontzertua: Neber Surrender, Ze Esatek! Ondoren, LAIOTZ.

Jolases hasiera.

14:00etan Bazkaria.
16:00etan Jolases jarraipena.
18:00etan Gorritiren showa.
19:30etan Txokolatada. Ondoren, buruhandiak.

Ostirala, 30

16:00etan Esku-lanak egiteko tailerra umeentzako.
17:30etan Futbito partidua.
00:00etan Kontzertua: Gaueko Itzalak Esne Beltza.

Ondoren, LAKETZ taldearekin goizalderarte gozatzeko aukera.

Igandea, 25

09:00etan Esnadeia (Donostiako txistulari bandaren eskutik).
10:30etan Meza nagusia.
11:30etan Hamaiketakoa. Ondoren, soka-dantza.
18:00etan XIII. Trikitixa txapelketa.

Ondoren, LEIRE LASA eta IRATI IRURZUN trikitilariak afal ordurarte.

Ondoren, buruhandiak.

22:30etan Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Uxue Alberdi, Ibai Esoain, Andoni Egaña. Gai-jartzailea: Egoitz Aizpuru.

Ondoren, LEIRE LASA eta IRATI IRURZUN trikitilarien jarraipena nazkatu arte.

Larunbata, 31

06:00etan Txokolatada.
07:00etan Sokamuturra.
09:00etan Zikiro prestaketaren hasiera.
09:30etan Meza.
11:00etan Errebote partidua. (Lokaleko finala).
14:00etan Zikiro jana.
19:00etan Dema. ETXETXO (Zubietako) eta AZKONOBIE-TA (Urnieta).

Ondoren, ANSORREGI eta LARRAÑAGA trikitilariak afal ordurarte erromeria.
22:30etan ANSORREGI eta LARRAÑAGA trikitilarien jarraipena gauerditarate.
00:00etan Jaien amaiera (Suzuri, suzko-zezen, e.a...).
00:30etan Kontzertua: Hesian taldearekin.

Ondoren, TRIKIHOTS trikitilariak erromerian jarraitzeko aukera.

Iñigo Ibarburu / Igerilaria

‘Bakarkako probetan taldekoetan baino erosoago sentitzen naiz’

Kirolari ugari eta kirol anizteta ibiltzen direnak ditugu Lasarte-Orian. Kirolari onak eta kategoriako asko, beste batzuk hasi berriak dira, ordea. Gazte ugari daude herrian oraindik gailendu ez diren arren talentu handia dutela erakutsi dutenak. Horietako bat Iñigo Ibarburu igerilaria dugu.

Txintxarri

Hurrengo urtean federatuen kategorian sartuko da Iñigo Ibarburu, 13 urteko lasarteoriar gazte hau. Sei urterekin sartu zen Lasarte-Oria Igeri Elkartearen, egun Buruntzaldeko Igeriketa taldea, eta jada 8 urte darama.

Bost urterekin ikastaro bat egin, kirol hau gustukoa zuela ohartu eta aurrera jarraitu zuen. Aurten, Barakaldon ospatutako Euskadiko eskola arteko jokoetan lau domina eskuratu zituen.

Zer moduzko denboraldia izan da 2009-2010a?

Oso gustura aritu naiz aurten, ezin naiz kexatu. Denboraldi polita eta emankorra izan da aurtengoa egia esan.

Zenbat proba edo txapelketetan parte hartu duzu?

Normalean 6 proba izaten dira urtean zehar, ofiziala eta gero beste lau edo bostetan parte hartu dut. Eta orotara 5 domina jaso ditut.

Euskadiko eskola arteko jokoetan 4 domina lortu zenituen, zein probatan?

Bai, orotara lau dominarekin bueltatu nintzen txapelketatik.

Urrezko domina eskuratu nuen taldeka, erreleboen 4 x 100 metro libreko proban. Zilarrezkoa ere eskuratu nuen taldean, 4 x 100 metro estiloan.

Eta brontzezko bi domina lortu nituen ere, baina oraingoan proba indibidualetan,

bata 100 metro tximeletan eta bestea 100 metro librean.

Orotara 4 domina izan ziren, bi taldeka eta beste bi domina bakarka.

Oso esperientzia polita izan da.

Probetan parte hartzeko zer nahiago duzu taldeka edo barkaka aritzea?

Nahiago dut bakarka aritzea. Taldeka aritzea askoz zailagoa da.

Izan ere, taldea osatzen dutenen kideen maila gehiengoa ez da berdina izaten. Maila baxuago edo altuagoekin tokatzen zaizu, eta horrek taldea ezegonkortu dezake.

Bueno maila altuagoekin aritzea ez da hain txarra, ez?

Ez, egia esan horrek dominak eskuratzeko aukerak handitzen ditu. Baina nik nahiago dut bakarkako probetan aritu.

Lasarte-Oriako San Pedro trofeoan ere parte hartu zenuen.

Bai eta domina irabazi ere. Oraingo honetan gainera, urrezko domina lortu nuen.

Zein estilotan aritu zinen?

100 metro tximeletan proban.

Txapelketa edo trofeo hau jokatu baino lehen, entrenatzaileak gustukoan edo gehien gustatzen zaigun estiloa hautatzeko aukera eman digu.

Ni 100 metro tximeleta estiloan da hobekien sentitzen naizen estiloan, eta beraz hori aukeratu nuen.

Momentu hauetan igeriketako zein mailatan lehiatzen zara?

Federatuekin entrenatzen badut ere, oraindik federatu gabekoekin lehiatzen naiz. Baina hurrengo urtean, jada federatua izango naiz, eta maila goren batean arituko naiz. Ilusioz espero dut hurrengo denboraldia

Noiz egiten dituzue entrenamenduak eta nolakoak dira?

Asteleheneetik ostiralera, asteazkenetan izan ezik, ordu eta erdi entrenatzen dugu.

Estilo guztiak lantzen ditugu entrenamenduetan,

ezinezkoa izan dut hauetan parte hartu. Espero hurrengo urtean hor egon ahal izatea.

Hurrengo denboraldiari noiz emango diozue hasiera?

Irailean hasiko gara Hala ere, nahiz eta denboraldia amaitu den, ez diogu entrenatzeari utzi. Momentuz hor gabiltza.

Oporrak bakarrik abuztu izango ditugu. Horrela urtean zehar landutako guztia ez galtzeko. Bi hilabete egin gabe egonez gero, fisikoki eragina izango luke.



beraz, nahiko osoak dira. Batzuetan ere, entrenatzaileak zein estilotan aritu nahi dugun galdetzen digu.

Hala ere, besteetan, abiadura eta guk “rotaotolo” bezala ezagutzen duguna burutzen ditgu. Eta horiek entrenamendu gogorrak izaten dira.

Eta proba bat datorrean entrenamenduetan zer egiten duzue?

Proba bat hurbil dugunean normalean estilo hori prestatzen ibiltzen gara.

Estilo horretan lehiatu behar gara, beraz, ondo prestatu beharra dugu.

Aurtengo denboraldia emankorra izan da, baina beste urteetan dominarik lortu al duzu?

Domina bat edo beste lortu dut. Hala ere, esanguratsuekina eta burura etortzen zaidana Kutxa saria izango litzateke.

Euskadiko txapelketetan ibili eta irabazi duzu. Espainiar Estatuetaoetan egon zara?

Ez. Hurrengo urtetik aurrera Espainiar estatukoetan parte hartzeko aukera izango dut, federatu bihurtzen naizenean. Hurrengo urtean infantilen bigarren urtean lehiatuko naiz. Aurten beraz,

Hurrengo denboraldiari begira zer espero duzu?

Nire ustez denboraldia aurtengoa baina zailagoa izango da. Jada helburoekin, federatuekin hasiko naiz lehiatzen... Hala ere, orain arte ibili naizen nire adinekoen kontra ere egongo naiz. Nire taldean 97an jaiotakoak sartuko gara.

Igeriketan daramazkidan 8 urteetan gogor aritu naiz, eta hurrengo urtean ere hor egongo naiz.

Gogor entrenatzen saiatuko naiz, aurten bezala denboraldi oparoa eduki nahi dut. Eta hori lortzeko lan egongo dut. •

“ Barakaldon ospatutako Euskadiko eskola arteko jokoetan lau domina eskuratu nituen. Urrezko bat, zilarrezko beste bat eta brontzezko bi. Txapelketa oparoa izan nuen.